

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

Lehenik eta behin web horri bat sortuko dugu, bertan izena emateko eta nahi duzun pack-a erosteko, ondoren zure helburua idatziko duzu eta zurekin kontaktuan jarriko gara, 20 minutuko hitzordu bat edukiko dugu helburuari buruz hitz egiteko eta baldintzei buruz hitz egiteko. Gainera, gure webgunean gure taldeari buruzko atal bat egongo da, non azaltzen duen nor garen eta zergatik egiten ari garen egiten ari garena. Bestalde, webgunean gure bezero batzuen transformazioak ipiniko ditugu, beste pertsonak ikus dezaten egiten ari garenak emaitzak dituela.

Bestetik, tiktok eta instagram kontu batzuk sortuko ditugu non gure ikasleen progresioa eta testimonioak publikatuko ditugun publizitatea egiteko eta beraiek ere publikoaren aurrean exposizio handia edukitzeko. Sare sozialak erabiliko ditugu, beraiek baitira munduari azaltzeko eta gure empresa zabaltzeko erarik eraginkorrena eta azkerrena. Bestalde, gure profesionaleri gomendatuko diegu, beraiek beraien marka pertsonala zabaltzea, horrela, ez bakarrik ez da beraientzat oso aberasgarria izango, baizik eta guretzat ere oso aberasgarria izango da, beraien bitartez ere gure empresa promozionatu dezakegu.

Hortaz, komunikazio-kanaltzat sare sozialak erabiliko ditugu eta beraien bitartez, gure empresaren pertzepzioa eta ebaluazioa egingo dute. Bestalde, salmenta kanaltzat webgunea erabiliko dugu eta erosketak eta entrega horren bitartez egingo dugu. Eta salmenta ondorengoa, bai webgunea eta bai sare sozialen bitartez egingo dugu.